

**Ekintzaileak eta ogibideak**

Emprendedoras y oficios

Emakumeekin-Ker Fatou-Perpetum Mobile-Baratzenea

**Pop up  
denda!**

**EDE**-tik



**Abenduak 16** Diciembre / 11:00

**DIÁLOGOS &  
APRENDIZAJES**





# EDEtik Ekintzaileak eta ogibideak. Pop up denda!

Bauhaus ekimenaren helburua zen, besteak beste, arte eta ogibideak, funtzionalak izateaz gain, gizartearen zerbitzurako baliabideak izatea. Mugimendu hark emakumeak bildu zituen bere tailerretan, jardueran eta pedagogian. Bauhausen, emakumeek zentroa garatzeko funtsezko rola bete zuten.

Gainera, Bauhaus ahalduntze-mugimendua, funtzio osagarriko eredia izan zen eta ogibideek funtsezko rola betetzen zuten beste diziplina batzuetan barneratuta. Emakumeek eta gizonek elkarrekin egin zuten lan aldaketa lortzeko.

Bauhausek sormena, irudimena eta sorkuntza biltzen zituen eta ekintzailtza zuen barneratuta ia modu espontaneoan, ideia eta proposamenei forma emateko eta horiek gauzatzeko ezinbesteko ezaugarri gisa.

Arteen eta ogibideen bidez aurrera eramandako eraldaketa sozialaren eta inklusioaren narratiba hori ere Europako Bauhaus Berriaren erdigunean txertatuta dago: ezagutzen, ogibideen eta ezagutzen arteko mugak haustea eta modu kolektiboan ikastea eta ekitea.

Horregatik, EDE Fundazioak **elkarrizketa + pop up denda** batean parte hartzera gonbidatu nahi zaitu **abenduaren 16an, ostiralean**. Bertan, sektore askotako emakume ekintzaileek beren esperientziak kontatuko dizkigute eta, gainera, haien sorkuntzak eta generoak ezagutzeko aukera izango dugu. Kontsumo arduratsuko erosketa batzuk egin ahal izango ditugu produktu inklusiboekin, jasangarriekin eta tokikoekin. **Animatu parte hartzera!**

## EGITARAUA

### Elkarrizketa: 11:00etatik 12:00etara

**[Emakumeekin](#) + [Ker Faotu](#) + [Perpetum Mobile](#) + [Baratzenea](#)**

**[Emakumeekin](#)**: Miren Lauzirika. Bizkaiko emakume ekintzaileen elkarte. "EmakumeEkin osatzera bultzatzen gaituzten arrazoi nagusiak bi dira:

- Enpresa-munduan emakumeek duten ikusgarritasun-gabeziaren aurrean dugun kezka.
- Enpresak sortuta, emakumeek gizarteari egiten dioten ekarpena osoagoa izango dela uste dugu.

Emakumeak enpresetan duen presentzia bigarren lerroa erreserbatuta dago oraindik ere".

**Ker Faotu. Fatou Dieng. Afrikako oihalak eta osagarriak.** Ker Fatou Afrikako oihalen bidez (gehienak Senegalekoak) Senegaleko, Euskal Herriko eta Espainiako kulturen artean egindako topaketarako lokala da. Bertan diseinatutako eta Senegaldik ekarritako artisautzako artikulua eta osagarriak ere badaude. Afrikako diseinu moderno eta tradizionalak Europako diseinuekin fusionatuta ere ezagutarazi nahi ditugu. Afrikako kultura ikasteko tokia ere bada; ikastaro dibertigarriak eta sormenekoak eskaintzen ditugu. Hasiera batean, emakume afrikar gisa bizirik irauteko denda zen eta gaur egun erresistentziarako toki bihurtu da. Bilbo kulturantzuna da eta agerian geratu behar du horrek.

**Perpetum Mobile: Mireia Viladomiu.** Peñascal Kooperatibarekin batera, ehungintzako artikulua bereziak diseinatzeaz, sortzeaz eta saltzeaz arduratzen den ekimena sortu du. Modako, etxerako eta idazmahaiarako osagarriak eskaintzen dituzte. “Ekonomia sozialeko enpresa gara eta bigarren aukera bat behar duten pertsonen prestakuntza bultzatzeko onura ekonomikoa lortu nahi duen negozio-eredua dugu. Gure enpresa-ereduan, ez ditugu topatuko marka handiak eta ehungintzako talde handiak; horiek beharrean, tokiko hornitzaileekin lan egiten duten, ezagutza eta enplegu duina sustatzen duten eta beren helburua mundu mailako beroketa murrizteko munduko agenda betetzen laguntzea den enpresa txikiak daude”.

**Baratzenea, ortu ekologikoa: Vanessa Vargas Balsells.** Tokiko produktua, agroekologikoa eta sasoikoa. “Lurrak ematen diguna hari itzultzen saiatuta, konfiantzazkoak, kalitatezkoak eta gertukoak diren produktuak landatzen eta prestatzen ditugu. Eta, aldi berean, gure ingurunea babesten eta zaintzen dugu, eta tokiko ekonomiarako ekarpena egiten dugu”. Elikadura mailako subiranotasunerako bidean, Baratzenearen helburua da bere aletxoak jartzea Bilboko eta inguruko etxeetako mahaietara modu jasangarrian ekoizita dauden eta kalitatezkoak diren elikagaiak gerturatuta.

**Pop up denda!: 12:00etatik 14:00etara.**